

6-FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko nahitaezkoa da inguruko tabernak eta jatetxeak lokalarekin izango duen harremana.

Aplikazioa eta web-orria funtsezko osagaiak izango dira gure enpresarentzat. Ondorioz, programazioa nahitaezkoa izango da.

Tabernetatik bezeroerainoko distribuzioa beharrezkoa denez motorreko gidabaimena eta “soft-skills” aurkezten duten langileria beharko dugu.

Hasieran jarriko dugun kapitalari dagokionez, hiru zatitan banatuta egongo da. Lehenengoz enpresaren sozio bakoitzak (lau gara) jarri beharko dugun diru kantitatea guztira 36000€ izango direla estimatzen dugu, hau da, 9000€ bakoitzak. Bigarrenez, enpresa berria izateagatik jasoko ditugun diru-laguntza eta azkenik, maileguak aportatuko digun diru laguntza.

Amaitzeko, gure enpresak bulego bat izan beharko du, Bilbon kokatuta, gure bezero eta hornitzaileengandik hurbil egoteko. Hala ere, nabarmendu behar dugu gure zerbitzua Uribe-Kostan zehar bakarrik zabalduko dela hasieran gutxienez.

